



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2019/7

DIRU-PRESTAZIOAK, IKASTETXEETAKO JANTOKIETARAKO. 2019. URTEKO 1. SEIHILABETEA

Deialdi honen xedea da diru-laguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA.
2. Organo emailea:	Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Gizarte Ekintzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Diru-laguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa.

B. DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Gizarte-zerbitzuen arloko diru-laguntzak ematea, familia-unitateei eskola-jantokietarako diru-prestazioetarako, baldin eta deialdi honen B.3) puntuan eta D) letran ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badituzte.

Eskola-jantokietarako diru-laguntzak “familiendako diru-laguntzak” izeneko multzoaren barrukoak dira, eta horregatik diru-laguntza horiei, oro har, egokitzen zaizkien baldintzak – profesionalak zein sozio-ekonomikoak– bete beharko dituzte.

2. Deialdiaren helburua:

Deialdi honen helburua da, betiere Udalak gizartearen esparruan duen ardurari eutsita, arazo ekonomiko, familiar edota sozialak direla medio zaurgarritasun-egoeran dauden hurrei laguntzea, ikastetxeko jantokietara bazkaltzera joan daitezen. Helburua dute, halaber, epe luzera, haurren eskola-errendimendua eta garapen pertsonala hobetzea, elikadura-aztura osasungarriak sustatzea eta arrazoi ekonomikoek eragindako hezkuntza-erkidegoko haurren arteko bazterkeria ekiditen saiatzea.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Deialdi hau zuzenduta dago Iruñeko familiei jantokirako diru-laguntzak ematera –familia-unitatearen kide-kopuruaren eta errentaren arabera–, ikastetxeetako Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleendako (3-12 urte), 2019ko urtariletik ekainerako eperako (2018-2019ko ikasturtea).

Diru-laguntza honen onuradun izan daitezke 2018ko irailetik abendura bitarteko aldian diru-laguntza jaso dutenak eta aurkeztu diren eskaera berriak (2019ko urtarrila - ekaina). Halaber, onuradun izan daitezke, baita ere, 2018ko irailetik abendurako aldian eskabidea aurkeztu duten eskatzaileak, hura ematea eta ordaintzea ezinezkoa izan zelarik, baldin eta betetzen badituzte onuradun izateko deialdi honetan ezarritako betekizunak.

Diru-laguntza hauek ematen dira ikastetxeko jantokiak eragindako gastuei aurre egiteko, eta ez, ezein kasutan ere, ikastetxe batzuek eskaintzen duten zakote-ontzi zerbitzua laguntzeko.



Jaso beharreko zenbatekoa diru-laguntza eskatu duen familia-unitatearen diru-sarreraren arabera zehaztuko da, deialdi honen D.1) puntuaren 5. zenbakian ezarritako mugekin bat. Oinarri hauek arautzen dituzten prestazioak beste erakundeek (Nafarroako Gobernua, enpresek emandako hobari sozialak, etab.) emandako laguntzen eta familiak berak kontzeptu horretarako egindako ekarpenaren osagarri izanen dira.

Diru-laguntzaren zenbatekoa behar den orotan aldatzen ahalko da, gizarte langileak horretarako proposamen arrazoitua aurkeztuz gero. Halaber, diru-laguntza ezarritako mugaeguna baino aldi laburrago baterako ematen ahalko da.

4. Baloratzeko baldintzak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Diru-laguntzak emateko, kontuan hartuko da onuradunek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenetz. Halaber, familia-unitateen errentak ez ditu gainditu behar deialdi honen D.1) puntuaren 5. zenbakian familia-unitateentzat diru-sarreraren muga gisa ezarritako tarteak.

Laguntzak deialdi honetan onuradun izateko galdatutako betekizunak betetzen dituzten eskabideak aurkeztu ahala emango dira, eta, betiere, eskabideei erantzuteko aurrekontu-kontsignazioak iraun bitartean. Diru-laguntzak emanen dira bakarrik baldin eta horretarako kreditu eskuragarririk badago indarra duen aurrekontuan.

Administrazio-eraginkortasuna dela-eta, 2018ko azken lauhilekorako diru-laguntza lortu duten eskaerak baliagarriak dira deialdi honetarako eta 2019ko ekaina arte (hilabete hori barne), baldin eta diru-laguntza jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak eta betekizunak bere horretan badaude, ikastetxeek edo familiek ez badute jakinarazten adingabeek zerbitzu horretan baja hartu dutela, edo familiek ez badiote uko egin deialdi honek arautzen duen diru-laguntzari, edo diru-laguntzak ez bazuen barne hartzen baja emateko data jakin bat.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 500.000 €

Paragrafo honen amaieran adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2019an agortu eta Gizarte Ekintzako Alorrean aurtengorako aurreikusitako beste jardueretako batzuk ez badira gauzatu, jarduera horietarako aurreikusitako zenbatekoak deialdi honetan erabiltzen ahalko dira.

Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta G.2) puntuan ezarritako epean egin duten eskatzaileak, baldin eta prestazio ekonomikorik jaso gabe gelditu badira kreditua agortzearen ondorioz.

Diru-laguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 70/23181/480000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Jaso beharreko diru-laguntzen zenbatekoa familia-unitate eskatzaileen diru-sarreraren arabera zehaztuko da, betiere deialdi honen D.1) puntuaren 5. zenbakian ezarritako mugekin bat. Adierazitako familia-unitate eskatzailearen diru-sarreraren muga arabera, honako diru-laguntza tarte hauek ezarri dira:

1. tarte: 1,80 € egun bakoitzeko.
2. tarte: 1,40 € egun bakoitzeko.
3. tarte: 1,00 € egun bakoitzeko.
4. tarte: 0,60 € egun bakoitzeko.
5. tarte: 0,30 € egun bakoitzeko.

Zaintza partekatuen kasuetan, diru-laguntza eskatu duten gurasoetako bakoitza osatzen duten familia-



unitate bakoitzari dagokion zenbatekoa –baldin eta onuraduntzat hartzeko betekizunak betetzen badituzte– izanen da dagokion diru-laguntza tartearen arabera eman beharrekoaren erdia. Edonola ere, ezin izanen du inolaz ere gainditu deialdi honetan aurreikusitako gehieneko diru-laguntza, hau da, 1,80 euro haur eta egun bakoitzeko.

Gurasoek osatzen dituzten familia-unitateetako bakar batek betetzen baditu diru-laguntzak jasotzeko betekizunak (errola, diru-sarreraren baremoa edo bestelako arrazoiak direla-eta), diru-laguntzak lehenengo unitate horri dagokion tartearen erdia joko du.

Ikastetxe itunduen kasuan, haurrek eskola-jantokiak berdintasun-baldintzetan erabil ditzaten, eta kontuan hartuta Ikastetxe Itunduen Zerbitzuak familia horiei ematen dizkien kantitateak, Udalaren banakako diru-laguntza behar besteko zenbatekoarekin osatuko da, Nafarroako Gobernuak ikastetxe publikoetan egoera ahulean dauden familiei ematen dien diru-laguntzekin parekatzeko (zenbateko hori urte anitzetako lehiaketa publiko bidez ezartzen da eskualdeko ikastetxe publikoetarako).

Diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izanen du, inongo kasutan ere, jantokiko gastua gainditu.

Diru-laguntzaren zenbateko efektiboa kalkulatu da kontuan hartuta ikasle bakoitza eskola-jantokira benetan zenbat egunetan joan den.

4. Hainbat urtetarako deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	500.000 €	2. urtekoa:	€	4. urtekoa:	€
1. urtekoa:	€	3. urtekoa:	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan daitezke diru-laguntzaren oinarri den egoeran dauden pertsona edo entitateak, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta paragrafo honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Egiazko auzotasuna Iruñean edukitzea eta bertan errolatua izatea (hala eskatzaileak nola familia-unitatea osatzen duten haurrak) gutxienez diru-laguntza jasotzen hasi baino hilabete bat lehenagotik eta hura jasotzen den bitartean. Familiak berriz elkartzeko prozesutik datozen haurren kasuan, salbuetsita egonen dira, jantokira sartzeari dagokionez, erroldan lehenagotik izena emanda izateko baldintza betetzetik.

2. Lehenago eskatu izana helburu berberetarako Administrazioako beste zenbait arlok ematen dituzten laguntzak edota baliabideak. Hezkuntzako behar bereziak izanda ikastetxe arruntetan eskolaturik dauden haurrek Hezkuntza Ministerioari ere eskatu beharko diote laguntza, dagokion deialdian. Hezkuntza Berezikoko ikastetxe batean eskolaturik daudenek, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari eskatu behar diote laguntza, eta hori bateraezina da deialdi honekin; horrenbestez, ez dagokie diru-laguntza hau eskatzea.

3. Haien kargura edukitzea 2018-2019ko ikasturtean eskolaturik dauden haurrak (Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan), ikastetxe publiko edo pribatu itundu batean matrikulatuta.

4. Familiaren diru-sarrerak ez gainditzea familia-nukleoaren diru-sarreraren muga gisara jarraian ezartzen direnak:



Kide-kopurua	1. tarte	2. tarte	3. tarte	4. tarte	5. tarte
2	9.895	10.885	11.874	12.864	13.855
3	11.728	12.901	14.073	15.246	16.419
4	12.827	14.110	15.393	16.675	17.957
5	13.927	15.319	16.712	18.105	19.497
6 edo gehiago	14.660	16.126	17.592	19.058	20.524

Kalkulua egiteko, azkeneko Errenta Aitorpenean (529 laukia) agertzen diren zerga-oinarriaren (507 laukia) atal orokorra, aurrezkiaren zerga-oinarria (8840/8841 laukiak) eta salbuetsitako errentak batuta lortutako emaitza hartuko da kontuan.

5. Familia-unitatearen ondasun-muga.

Laguntza ekonomiko hau jasotzeko eskubidea izateko, familia-unitatearen onartutako ondasuna honako kontzeptu eta muga hauek bakarrik osatzen ahalko dute:

- Ohiko etxebizitza eta hari atxikitakoak, bertako altzariak, etxeko hornidurak eta ohiko joan-etorrietarako ibilgailua; horrek guztiak batuta gehienez ere 300.000 euro joko du.
- Lan- edo enpresa-jarduera garatzeko behar diren instrumentu edo ondasunak, eta jarduera hori izatea familia-unitatearen diru-sarrera iturri nagusia.
- Eskatzailearen familia-unitatearen ondasun higigarriak, Errenta Bermatuaren balioaren % 65 arte, kide bakarreko familia-unitate baterako eta urteko datuak kontuan hartuta.

Kasu guztietan, deialdi honen klausulekin bat etortzeaz gain, familia-nukleoaren errentek ez dituzte gaindituko familien diru-sarreraren mugei dagokienez ezarritako tarteak.

Familia-nukleo baten kide-kopurua zehazteko, kontuan hartuko da zenbat kide dituen familia-unitateak eskaera egiten duen unean.

Familia-unitatetzat joko da, deialdi honen ondorioetarako, eskatzaileak eta, hala badagokio, ezkontide-harremanean edo antzeko lotura afektiboan loturik dagoen pertsonak osatzen dutena, eta haiekin bizi diren seme-alabak (kontuan hartu gabe hurrekin duten aitatasun- edo amatasun-harremana zein den), edo tutoreak eta anai-arrebak.

Zaintza partekatuko kasuak ez dira joko guraso bakarreko familiatzat hurrengo paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako. Kasu horietan, gurasoetako bakoitzaren egoera ekonomikoa baloratuko da dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, C.3 puntuan ezarritakoarekin bat.

Familia-nukleoaren kide-kopurua zehazterakoan, zenbait egoera hartuko dira kontuan, eta kide bat gehiago konputatuko zaie. Hona hemen egoera horiek: familia gurasobakarrak, familia ugariak eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten kideren bat dutenak.

Egoera horiek metagarriak izan daitezke familia-nukleoaren kide-kopurua zehazterakoan, baldin eta behar bezala egiaztatzen badira eta baremo ekonomikoarekin bat badatoz.

Halaber, familia-nukleoaren diru-sarrerak kalkulatzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

- Diru-sarreretatik etxebizitzaren gastuaren % 70 deskontatuko da (gehienez ere, 200€ hilean), gela baten alokairuaren kasuetan, edo proportzioan dagokiona bi gela alokatuz gero. Ezin izanen da deskontatu, inolaz ere, alokairuaren kostua baino zenbateko handiagorik.

- Etxebizitzan familia bakarrik bizi den kasuetan, eta alokairuaren kontratuaren edo hipotekaren titularrak



badira, alokairuaren edo hipotekaren hileroko kostuari % 70 aplikatu eta lortutako zenbatekoa deskontatuko da. Deskontatu beharreko zenbatekoa ez da inongo kasutan 400 €/hilean baino gehiago izanen. Gela bat edo bat baino gehiago alokatuta dutenen kasuetan, kontzeptu honen bidez lortutako diru-sarrera alokairutik edo hipotekatik deskontatuko da. Lortutako zenbatekoari aipatutako portzentajea aplikatuko zaio (% 70), dagokion kenkaria aplikatzeko.

- PFEZa aitortzeko betebeharra ez duten eskatzaileen kasuan, dagokion urtean jasotako diru-sarrera guztien batura izanen da errenta konputagarria.

- Halaber, kontuan hartuko dira familia-nukleoan bizi diren adingabeek jasotzen dituzten mantenu-pentsioak, nahiz eta adingabe horiek ez izan diru-laguntza honen onuradunak, bai eta senideen arteko beste mantenu-pentsio batzuk ere, horien hartzailea familia-nukleoko kide bada.

- Kontuan hartuko dira egoera berezi batzuk, non jantoki zerbitzua prebentzio- eta babes-neurri bat izan baitaiteke haurrentzat, edo hurrek tratamendu berezia behar badute, orokortzeko zaila dena. Halako kasuetan, salbuespen bat egin daiteke deialdi honetan ezarritako muga ekonomikoetan zein eroldaren antzinatasunean, horretarako balorazio teknikoko txostena egin ondoren.

- Diru-laguntzak estaltzen ahalko du, salbuespenez, eskola-jantokiaren erabiltzailearen kostuaren % 100, betiere alde zuzeneko egoeraren berri ematen duen gizarte-txostena emanda eta familia-unitatearekin gauzatzen ari den esku-hartzeko plangintza aurkeztuta. Salbuespen horiek Balorazio batzorde batek aztertuko ditu, honako hauek batzordekide dituela: Alorreko zuzendaria, Haurtzaro eta Familiako arduraduna eta prestazio ekonomiko hau baloratzeko ardura duen teknikaria. Behin Batzordeak salbuespen hori aplikatzeko ezarritako epea amaituta, deialdi honetako C.3 puntuan ezarritako diru-laguntza tarteak aplikatuko da, salbuespen berria justifikatzen duen gizarte-txostena aurkezten den kasuetan salbu.

Diru-laguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☒ BAI ☐ EZ

Deialdi honetan parte hartzen duten ikastetxe eta Guraso Elkarteek erakunde laguntzaile izaera hartuko dute.

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, diru-laguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- **Eskolako jantoki-zerbitzua ikasturte osoan zehar erabiltzea. Salbuespenez, kontuan hartzen ahalko dira gerora sortutako egoera pertsonal eta familiarak, ikasturtean zehar bertaratzea ekiditen dutenak.**

Inongo kasutan ere ez dira diru-laguntzaren barruan sartuko ikaslea jantokira joan ez diren egunak, eta horiek benetan jaso beharreko laguntza-kopurutik deskontatuko dira.



- Ikastetxeari lagatzea dagokion jantoki-zerbitzuko zenbatekoa kobratzeko eskubidea.

- Kasu guztietan, familiek diru-laguntza baloratzeko eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte, eta Gizarte Ekintzako Alorrari jakinarazi beharko dizkiote beren egoera sozioekonomikoan eta laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretan izan diren aldaketak oro, egoki izanez gero jasotzen duten diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzeko edo bertan behera uzteko (eroldari eragiten dion etxebizitza-aldaketa, egoera ekonomikoaren aldaketa, etab.).

- Udalak egiaztapenak eginen ditu, ausaz, egiaztatzeko emakidak irauten duen denbora guztian betetzen direla eskola-jantokiko diru-laguntza jasotzeko bete behar diren betekizunak. Gutxienez emandako eskabideen % 15 ikuskatuko dira.

- Behar bezalako publizitatea egiteko betebeharra, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu duela diru-laguntza jaso duten programak, jarduerak edo jarduketak: ☐ BAI ☒ EZ

Hona pertsona edo entitate onuradunak laguntza jaso izanaren berri emateko hartu behar dituen neurriak:

☐ Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

☐ Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektrikoetan, ikus-entzunezkoetan eta abarretan.

☐ Oroitzapen-plakak.

☐ Aipamenak hedabideetan.

☐ Beste batzuk:

Diru-laguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

G. ESKABIDEAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Diru-laguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik 2019ko ekainean ikasturtea amaitu arte izanen da.

Aurrekoa gorabehera, interes orokorrak lortzeko, hau da, eskola-jantokien finantzazioari laguntzea eta aurrekontu-kredituen administrazio-kudeaketa zentzuzkoa bultzatzeko, honako arau hauek aplikatuko dira:

- **Apirilaren 1a baino lehen aurkeztu eta diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena**



jasotzen duten eskabideak atzeraeraginekoak izanen dira eta deialdiaren indarraldi osoa hartuko dute, betiere kontuan hartuta haurrak jantokira benetan joan direla aldi horretan.

- Apirilaren 1etik aurrera (egun hori barne) aurkeztu eta diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena jasotzen duten eskabideek diru-laguntza zer hilabetetan eskatzen den eta hortik aurrera bakarrik izanen dute eragina, eta kontuan hartuta haurrak jantokira benetan joan direla aldi horretan (eta ez dute eraginkortasunik izanen, beraz, ebazpen-proposamena eman aurreko datetan hurrek jantoki-zerbitzua erabili duten egunetarako).

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskabideak interesdunek sinaturik –edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek– aurkeztu behar dira, deialdi honen I. Eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordeztu erantzukizuneko aitortpen bat aurkeztu ahal da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, bost urte ez badira bete agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Diru-laguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

b) Erantzukizuneko aitortpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, agiri hauek:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizuneko aitortpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori jasoko du dagokion eginbidean.



d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko diru-laguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitorpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☐ BAI ☒ EZ

f) Eskatzen den diru-laguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duen memoria.

Diru-laguntza honen xedea eta izaera kontuan harturik, ez da eskatuko eskatzaileak letra honetan adierazitako agiriak aurkeztea.

g) Familia-liburua edo, hala badagokio, hori ordezkatzan duten agiriak.

h) Salbuespen gisara, 2018ko urtarrilaren 1etik aitzina –langabezia, familia-egoeraren aldaketa, etab. direla medio– diru-sarreretan murrizketa handiak izan dituzten familiek hori adierazi beharko dute eskabideetan, eta murrizketa horren arrazoa egiaztatzen duten agiriak aurkezten ahalko dituzte. Nolanahi ere, atal honen hurrengo letran galdatzen den errenta-aitorpena ere aurkeztu beharko dute.

Egoera berriari dagozkion diru-sarrerak baloratzeko, horiek behar bezala justifikatu beharko dira, kasuan kasuko aldian jasotako zenbatekoei buruz erakunde publikoek edo enpresek eman beharreko honako ziurtagiri hauen bidez: nominak; Estatuko Enplegu Zerbitzuaren egiaztagiria –langabezia-prestazioa edo -sorospena jasotzen dituzten kasuan, enplegu-eskaerako txartela–; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria –pentsioen kasuan–; konpentsazio-pentsioa edo mantenu-pentsioa egiaztatzea –banantzeari buruzko epaia edo hitzarmen arauemailea badago–, edo, kasuan-kasuan, beste egiaztagiri batzuk. Kasu horretan, errenta konputagarria izanen da eskabidea aurkeztu eta aurreko 6 hilabeteetan izandako diru-sarrera osoen batuketa gehi errenta-aitorpenaren 529, 8840 eta 8841 epigrafeetako diru-sarrerak, salbu egiaztaturik gelditzen bada horiek ez direla jaso atal honetan aipatutako aldian.

i) Kasu guztietan, bizikidetz-unitateko kideen (aita edo ama zein horien ezkontide edo izatezko bikote berriak) 2017. urteko Pertsona Fisikoen Erretaren gaineko Aitorpena aurkeztu beharko da, datu fiskalak barne. Aitorpen hori egiteko betebeharra ez badute, betebeharrak hori ez dutela adierazten duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute –Foru Ogasunak emana–, datu fiskalak txertatuta. Kasu horretan, errenta konputagarria izanen da dagokion urtean jasotako diru-sarrera gordin guztien batura.

j) Autonomoen kasuan, urte osoko hiru hileko BEZaren aitorpena, eta urteko diru-sarreraren zinpeko aitorpena, hilabetez hilabete banakaturik.

k) Banantzeetan, dibortzioetan edo izatezko bikotea desagiten den kasuetan, epaiaren eta hitzarmen arauemaileen kopiak aurkeztu beharko dira, bai eta epaian ezarritako diru-ekarpenen banku-egiaztagiriak ere. Mantenu-pentsioa ez bada ordaintzen ari, epaitegian epaia betearazteko aurkeztutako eskaeraren kopia edo jarduketan hasieraren egiaztagiria.

Bikote egonkorren haustura-kasuetan, eskatzaileak nahi badu egoera hori kontuan har dadila hitzarmen arautzailea aurkeztu beharko du, ezkontzatik kanpo edukitako seme-alaben kasuan hartu beharreko neurriez bezainbatean.

l) Hipoteka- edo alokairu-gastuen azken hiru ordainagiriak gutxienez ordaindu izanaren gaineko



ziurtagiriak eta errentamendu-kontratua.

m) Desgaituen kasuan, desgaitasun-mailaren ziurtagiria aurkeztu behar da.

n) Diru-laguntza zehazteko beharrezkoak izan daitezkeen intereseko agiriak oro eskatzen ahalko dira, eskatzaileen osasun-, gizarte- edota ekonomia-egoera egiaztatzeak, betiere ebazpen-proposamena egiten duen programaren arduradunak eskatzen baditu.

(Ikusi III. Eranskinean zehaztutako dokumentazioa).

Zaintza partekatuen kasuetan, eskabide bakar bat aurkeztu beharko da, titular bakar baten izenean, ezertan galarazi gabe aurkeztu behar izatea hala deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak nola amaren zein aitaren diru-sarrerak, eta haiei dagozkien familia-unitateenak, diru-laguntza baloratu ahal izateko, C.3 puntuan jasotakoarekin bat.

Eskaerak berekin ekarriko du datu pertsonaletara sartzeko baimena (familia-unitateko 16 urtetik gorako kide guztiek sinatuta), eta horrela ahalbidetuko da udal-teknikariak sartu ahal izatea Udal Erroldan, Udal Katastro eta zergetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpenean eta Datu Fiskaletan, Lan bizitzaren egiaztagirian, Pentsioaren egiaztagirian eta Estatuko Enplegu Zerbitzuaren prestazioen egiaztagirian, Nafarroako Gobernuaren Errenta Bermatuan eta Merkataritza zein Kooperatiben Erregistroetan.

Baimen hori egiaztapen- eta kontsulta-ondorioetarako eskatzen da. Datu horiek kontsultatu izanak ez du ordeztan familia-errenta kalkulatzeko aurkeztu beharreko agirien aurkezpena.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautotuak diren kopiak.

H. PROZEDURA INSTRUITU ETA EBAZTEA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, eta horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) puntuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebatzeko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Halaber, ebazpen-proposamena emanen da Programaren ardura duten udal-teknikarien txostena ikusi eta horren arabera.

Behin eskaerak Gizarte Ekintzako Alorrean erregistratuta eta programaren arduradun diren udal-teknikariak balorazioa egin ondoren, egindako balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie familia eskatzaileei, ikastetxeei, Guraso elkartei, eskola-jantokiko zerbitzua kudeatu behar duten entitatei eta dagokion udal-zerbitzuari. Jakinarazpen horrek ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako onuradunaren alde, Iruñeko Udalaren aurrean, ebazpena egiteko eskumena duen organoak aipatu onuradunari diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazi arte.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: diru-laguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaera ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.



3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☐ BAI ☒ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Diru-laguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako diru-laguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRU-LAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diru-laguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek ahalko dira diruz lagundu: Haurrak eskola-jantokian bazkaltzetik eratorritakoak.

Diru-laguntzaren xede diren gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) puntuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere diru-laguntzen xedea izanen:

2. Diru-laguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *Deialdiaren indarraldia hartzen du, hau da, 2018-2019ko ikasturteko urtariletik ekainera bitarteko aldia.*

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diru-laguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☐ BAI ☒ EZ



Zenbatekoa edo ehunekoa:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren diru-laguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Oinarri hauek arautzen dituzten prestazioak beste erakundeek (Nafarroako Gobernua, enpresek emandako hobari sozialak, etab.) emandako laguntzen osagarri izanen dira.

Aurrekoa gorabehera, hezkuntzako behar bereziak izanda ikastetxe arruntetan eskolaturik dauden haurrek Hezkuntza Ministerioari ere eskatzen ahalko diote laguntza, dagokion deialdian. Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolaturik daudenek, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari dagokiona. Azken diru-laguntza horiek bateraezinak dira deialdi honekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diru-laguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Diru-laguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua:

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Diru-laguntza osorik alde aurretik ordainduko da emandako laguntzetatik ateratzen den zenbatekoaz.

Diru-laguntzak kasuan-kasuan jantoki zerbitzua kudeatzeko ardura duten entitate laguntzaileei ordainduko zaizkie, eta horiek, behin diru-laguntzaren zenbatekoa jaso ondoren, onuradunei banatu beharko dizkiete, gehienez ere, hilabeteko epean, aurrez egin ez badute.

Aldez aurretiko ordainketa egitean ordaindutako aurreko aldiari dagokion justifikazioa egiaztatuko da (2018ko irailetik abendura bitartekoa, 2018-2019ko ikasturteari dagokiona), deialdiko Ñ letran ezarritako justifikazio-araubidearekin bat. Baldin eta jantokien kostua eta bertaratzea egiaztatu ondoren alderik baldin badago alde aurretik ordaindutako zenbatekoen (ikasturtearen lehen lauhilekoan ordainduak) eta benetan ordaindu beharko ziren zenbatekoen artean, alde hori berdindu beharko da (ordaindu edo itzuli,



dagokiona) deialdi honi dagokion aldez aurretiko ordainketan.

Behin urtariletik ekainera bitarteko eskola-aldia bukatuta, eta deialdi honen Ñ letran adierazitako egiaztagiria aurkeztuta (beranduenez 2019ko ekainaren 25ean), alderik baldin badago aldez aurretik ordaindutako zenbatekoen eta epe horretan benetan ordaindu beharko diren zenbatekoen artean, alde hori berdindu beharko da (ordaindu edo itzuli, kasuan-kasuan dagokiona) hurrengo deialdiari dagokion diru-laguntzen aurretiazko ordainketan (2019-2020ko ekaina eta abendua bitarteko aldia).

Ezin izango balitz ordaindu, entitate laguntzaileek egin beharko lukete zenbateko horien ordainketa.

Diru-laguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Nolanahi ere, laguntza hauen izaera kontuan harturik, eta Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluari loturik lauki honen D.1) puntuaren azken paragrafoan ezarritakoarekin bat, azken betekizun hori bete gabe gera daiteke.

Ez da aplikatuko Iruñeko Udalak kobratzeke dituen zorrak kitatzeko duen ahalmen berezia (diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 33.4 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat), deialdi honetan emandako diru-laguntzak zorren ordainketa egiteko baliatuta.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta diru-laguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduarekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua:

☐ Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistemaren bat:



Eskolako jantoki-zerbitzua kudeatzeko ardura duten entitate laguntzaileek justifikatu beharko dituzte, kasu bakoitzean, kostua eta jantokietara benetan bertaratzea. Halaber, ikasturtean zehar entitate laguntzaile horiek jakinaraziko dituzte hala gurasoek zein tutoreek haurrak jantokira ez joateko emandako "baja-aurreabisuak" nola diru-laguntza jaso baina jantokira joan ohi ez diren ikasleen kasuak.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, justifikazio gisara, atal honen 2. puntu adierazitako epearen barruan:

- 1.- Eskolako jantokira bertaratu izanaren fitxa-egiaztagiria, non zehatz-mehatz adieraziko baita ikasle bakoitza zein egunetan joan den, benetan, eskola-jantokira deialdi honetan adierazitako eskola-aldian.
- 2.- Eskolako egutegia.
- 3.- Eskola-jantokiaren eguneko batez besteko kostua.
- 4.- Ordainketa-gutuna, ikasleek jantokian bazkaldu ez duten egunei dagozkien kopuruen itzulketarekin.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Entitate laguntzaileek, ikastetxeek edo Gurasoen Elkarteek Gizarte Ekintzako Alorrari igorriko diote dagokion justifikazioa 2019ko ekainaren 25a baino lehenago.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako diru-laguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –diru-laguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak bategi ukitzen badu onuraduna, eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☒ EZ

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**



☐ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA, XEDE BERERAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK. III. Eranskina. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.**



DIRU-PRESTAZIOEN ESKABIDEA, IKASTETXEETAKO JANTOKIETAN BAZKALTZEKO

201__ - 201__ (e)ko IKASTURTEA

ESKAERA

ESKATZAILEA

Lehen abizena:		Bigarren abizena:	
Izena:			
IFZ/AIZ:		Telefonoak	
Helbidea			P. K.

ESKAERA

Laguntza ekonomikoa, behean adierazitako haurrak honako ikastetxe honetako jantokira joan daitezten:

IKASTETXEA:

Hasiera-data (famihiak bete beharrekoa):

ADINGABE ONURADUNAK

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	IKASTURTEA

- ☐ Konpromisoa hartzen dut eskatu zaizkidan agiriak aurkezteko oinarrietan zehaztutako epean.
- ☐ Betetzen ditut hala Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak onuradun izateko ezarritako baldintza orokorrak nola deialdi honetan aurreikusitako berariazko baldintzak.
- ☐ Baimena ematen dut Iruñeko Udalak bere kabuz ziurta dezan oinarrien D letran adierazitakoa..
Iruñean, __ (e)ko ____ (a)ren __ (e)an

Eskatzailearen sinadura

DATUEN BABESA: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu deialdi honetan jasotako datu pertsonalak diru-laguntza hau kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta datu horiek Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan biltzen ahalko direla. Hain zuzen ere, Iruñeko Udalera zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorrera joaz (Kale Nagusia, 2. Kondestablearen jauregia. 31001 Iruña) edo www.pamplona.es egoitza elektronikora joaz. Halaber, jakinarazten dizugu haurraren identifikazio-datuak eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoak Ikastetxeari eta jantokiko Guraso Elkarteari jakinaraziko zaizkiela, diru-laguntza kudeatu dezan. Zuk aurkeztutako eskabide hau ere baimen informatua da hemen adierazitakoetarako.



**-II. ERANSKINA-
- ERANTZUKIZUNEN AITORPENA -**

Izen-abizenak:

.....

Helbidea

(jakinarazpenetarako):

.....

.....

NAN:

.....

Telefonoa:

.....

Faxa:

.....

Helbide

elektronikoa:

.....

Bere kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):

.....IFZ:

.....Telefonoa: Faxa:

Jakinaren gainean nago ikastetxeetako jantokietan 2019ko urtariletik ekainera bitarteko aldiaren bazkaltzeko diru-prestazioak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia egin dela.

AITORPENA:

- Eskabidean jasotako datuak benetakoak dira, eta badituz hori egiaztatzen duten agiriak; halaber, men egiten diot aginte eskudunek egin dezaketen egiaztapenari.
- Bete egiten ditut onuradun izateko Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra aipatzen dituen betekizun orokorrak eta Deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak oro.
- Konpromisoa hartzen dut diru-laguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko erabiliko dudala eskatutako laguntzaren zenbatekoa.
- Xede bererako eskatutako diru-laguntzei buruz, hau adierazten dut (markatu dagokizuna):
 - o Ez diet ezein diru-laguntzarik eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri –ezta haiengandik halakorik jaso ere–. ☐
 - o Diru-laguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen, xederako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri. ☐ (Zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
 - o Diru-laguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik: ☐ (Zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)
- Baimena ematen dut Iruñeko Udalak ofizioz ziurta dezan deialdi honetako G.4) puntuan adierazitakoa.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, ____ (e)ko ____ aren ____ (e)an.
(Sinadura)

DATUEN BABESA - Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, jakitera ematen dizugu deialdi honetako diru-laguntza tramitzeko emandako datu pertsonalak diru-laguntza kudeatzeko baino ez direla erabiliko, eta datuok emateari uko egiteak berekin dakarrela diru-laguntzari ere uko egitea. Halaber, jakitera ematen dizugu jasotako datuak Iruñeko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietan bilduko direla eta horra zuzenduta gauzatzen ahalko duzu datuetan sartu, datuak zuzendu, ezereztu eta haien kontra egiteko eskubidea, Erregistro Orokorra (Kale Nagusia, 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora (www.pamplona.es) joaz.



Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- 1)** Eskabidea behar bezala beterik.
- 2)** Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
 - ❖ Eskatzailearen indarreko NANA, AIZa edo Pasaportearen fotokopia.
- 3)** Familia-liburuaren fotokopia edo, hala badagokio, hori ordezkatzan duten agiriak.
- 4)** Salbuespen gisara, 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina –langabezia, zurtasuna etab. Direla medio– diru-sarreretan murrizketa handiak izan dituzten familiek. Hori adierazi beharko dute, eta murrizketa horren arrazoia egiaztatzen duten agiriak aurkezten ahalko dituzte. Nolanahi ere, atal honen hurrengo letran galdatzen den errenta-aitorpena ere aurkeztu beharko dute.

Egoera berriari dagozkion diru-sarrerak baloratzeko, horiek behar bezala justifikatu beharko dira, kasuan kasuko aldiari jasotako zenbatekoei buruz erakunde publikoek edo enpresek eman beharreko honako ziurtagiri hauen bidez: nominak; Estatuko Enplegu Zerbitzuaren egiaztagiria –langabezia-prestazioa edo -sorospena jasotzen dituzten kasuan, enplegu-eskaerako txartela–; Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria –pentsioen kasuan–; konpentsazio-pentsioa edo mantenu-pentsioa egiaztatzea –banantzeari buruzko epaia edo hitzarmen arauemailea badago–, edo, kasuan-kasuan, beste egiaztagiria batzuk.
- 5)** Kasu guztietan, bizikidetzaren unitateko kideen (aita edo ama zein horien ezkontide edo izatezko bikote berriak) 2017ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpenaren fotokopia aurkeztu beharko da, datu fiskalak barne. Aitorpen hori egiteko betebeharra ez badute, betebehara hori ez dutela adierazten duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute –Foru Ogasunak emana–. Kasu horretan, errenta konputagarria izanen da dagokion urtean jasotako diru-sarrera gordin guztien batura.
- 6)** Autonomoen kasuan, urte osoko hiruhileko BEZaren aitorpenaren fotokopia.
- 7)** Banantze- edo dibortzio-kasuetan, epaiaren eta hitzarmen arauemailearen fotokopia. Mantenu-pentsioa ez bada ordaintzen ari, epaitegian epaia betearazteko aurkeztutako eskaeraren kopia edo jarduketan hasieraren egiaztagiria.
- 8)** Hipoteka- edo alokairu-gastuen azken hiru ordainagiriak gutxienez ordaindu izanaren gaineko ziurtagirien eta errentamendu-kontratuaren fotokopia.
- 9)** Desgaituen kasuan, desgaitasun-mailaren ziurtagiria aurkeztu behar da.
- 10)** Diru-laguntza zehazterakoan beharrezkoak izan daitezkeen intereseko bestelako agiri batzuk, eskatzaileen osasun-, gizarte- edota ekonomia-egoera egiaztatzeak, betiere programaren arduradunak eskatzen baditu.